

URKiko AUZOKO BILERA (Urkiko parrokia, 2013/11/12)

<p>Urki auzoko alde batzuetan txakur kakak egoten direla eta, kexak jaso dira.</p>	<p>Udaltzaingoari agindu garbi bat eman zaio: kaka jasotzen ez duten txakur-jabeei zehapena edo zigorra ezartzea.</p>	<p>Alkatetza.</p>
<p>Kexatu egin dira 5. edukiontzian apuntatu ez direnei zabor-tasa % 20a gehiago kobratzeagatik.</p>	<p>Edukiontzi berdean uzten diren hondakinen tratamenduak tona bakoitzeko 142 euroko kostua duen bitartean (gainera, Lapatxeko hondakindegira eraman eta ez dira berreskuratzen), edukiontzi marroian uzten diren biohondakinen tratamenduak 72 euroko kostua du tona bakoitzeko (eta ez hori bakarrik: hondakin horiekin konposta egiten da eta berriro erabiltzeko moduan uzten dira; berrerabiltze horrek berriro ere balioa ematen dio). Beraz, 5. edukiontzian izena ematen ez duten hiritarrek sortzen duten kostu ekonomikoa eta ingurumenarekiko eragina besteena baino handiagoa denez, bidezkoa ikusten dugu, sistema horren alde egin dutenek, ingurumenarekiko kezka dutenek eta udalari eta Mankomunitateari birziklatze-tasak jaisten, hondakinak berrerabiltzen eta balioztatzen laguntzen dietenek, besteek baino tasa txikiago ordaindu behar izatea.</p>	<p>Alkatetza.</p>
<p>.- Errekatxu kaleko 1aren pareko espaloia leku hartan dagoen tabernako bezeroek okupatzen dute. .- Aranberrineko orubea hobeto garbitzea eskatu dute.</p>	<p>.- Ezin da galarazi edo saihestu jendeak espaloia okupatzea; udalak erregulatu egiten ditu altzari publikoak eta okupazio pribatua horrelako egoerek sor ditzaketen eragozpenak murrizteko. Udaltzaingoak legez kanpoko okupazioen jarraipena egingo du. .- Aranberrineko orubea jabetza pribatu bat da, beraz, jabeei dagokie partzela behar bezala mantentzea. Partzelak ez baditu betetzen segurtasun eta higiene baldintzak, egin behar diren obrak egiteko agindua ematen da. Kasu batzuetan udalak berak ere egin ditzake obra horiek, subsidiarioki.</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>.- Urki kaleko 16. eraikinaren albotik pasoa zabaltzea eta handik dagoen lehenengo irteera-harmailan arrapala egin. .- Eraikinaren beraren parean dagoen espaloiak aldapa handia du eta labana da.</p>	<p>Proiektu bat egiten ari da. Obren egikaritzza urte honetarako egitea aurreikusten da.</p>	<p>Obrak.</p>

URKiko AUZOKO BILERA (Urkiko parrokia, 2013/11/12)

<p>- Errekatxu kaleko 6-8ko oinezkoen pasabidea, arriskutsua. Goratzea eskatu da. .- Errekatxuko espaloietan beheratuta edo janda dauden zatiak, arriskutsuak.</p>	<p>Pasabide goratu bat egin da.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>.- Ubitxa kaleko 6ko plaza txikia dela eta, kexak: alde hura zeharo kaltetuta dagoela eta argitasun gutxi duela.</p>	<p>Datozen jardunaldietarako utziko da.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>.- Mutiola kaleko 1. eta 2. zenbakien artean dauden eskailerak direla-eta, kexa. Sarbidea hobetzea eskatu da.</p>	<p>Eulogio Garate eta Mutiola kaleen artean igogailu bat jartzeko proiektua enkargatu da.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>.-Ubitxatik Urkira egingo den igogailua noizko izango den galdetu da.</p>	<p>Apirilean atera ziren obrak lizitaziorako eta aurten egitekoak dira.</p>	<p>Obrak.</p>

URKIKO AUZOKO BILERA (Urkiko parrokia, 2013/11/12)

<p>.- Kexak Eulogio Garate kaletik Errekatxura dagoen pasoari buruz. Esaten dute aldapa handia duela.</p>	<p>Auzo-igogailuaren obrak egiten direnean, paso hori hobetzen ahaleginduko gara.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>.- Ubitxa kaleko 17 eta 19 zenbakien ostean izan zen luiziaz galdetu dute.</p>	<p>Hormaren eboluzioa nolakoa den ikusteko jarraipena ari gara egiten. Horma egonkortzeko badago estudio edo azterlan baloratu bat.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Errekatxu/Sansaburuko barruko patioa garbitzea eskatu da.</p>	<p>Lan-agindu bat egin da patio horretan udalarena den zatia garbitzeko: Sansaburu kaleko 5 eta 7 zenbakien ostea.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Urki kaleko 11tik 13ra bitartean dauden eskailera estaliak gehiago garbitzea eskatu da.</p>	<p>Mankomunitateari bidali zaio idatzia. Horren jarraipena egingo da.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>

URKIKO AUZOKO BILERA (Urkiko parrokia, 2013/11/12)

<p>Kexak daude Urkin arratoiak daudelako.</p>	<p>Udalerrian arratoiak akabatzeko ardura duenari abisua pasatu zaio, aldian aldika, inguru hartako arratoiak kentzeko egin beharrekoak egiten baititu.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Bodega Martin zaharraren kale-zuloan dagoen ezpondako zuhaitzak inausi egiten direla, baina ez dela zikinkeria garbitzen.</p>	<p>Sastraka erraz kentzekoa bada, normalean Udal Lantaldeak berak erretiratzen du, baina zailxeagoak diren aldeetan (ezpondak...) sastrakak txikitu egiten dira eta bertan utzi.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Gurpildun aulkian ibiltzen denak izaten dituen trabak izan dira hizpide, Bidebarrietako izkinatik Urtzailera pasatzerakoan hain zuzen ere.</p>	<p>Lan-agindu bat egin da jan den zati horrek duen aldapa nolakoa den ikusteko eta erabakirik egokiena hartzeko. Emaitzak ikusi ondoren lan-agindua egin da espaloiak beheratua duen zati hori aldatu eta % 8ko aldapa emateko, araudiak ezarri bezala.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>- Errekatxun, Aranberrineko orubea hobeto garbitzea eskatu dute.</p>	<p>Leku batzuetan sastrakak edo sasiak moztu ondoren, hori dena txikitu eta bertan uzten da. Erretiratzeak kostu handia du.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>

URKiko AUZOKO BILERA (Urkiko parrokia, 2013/11/12)

<p>Urki auzoko lorategiak ez dira asko mantentzen. Hain zuzen ere, J.A. Iturrioz kaleko 3. eraikinaren alboan dagoena dute hizpide.</p>	<p>Lan-agindua egin da J.A. Iturrioz kaleko 3. eraikinaren alboan dagoen lorategiaren mantentze-lanak egiteko.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Kexak Errekatxu kaleko 23aren eta 25aren espaloian lirdinga dagoelako.</p>	<p>Lan-agindua eman da espalo hori ureztatze-makinarekin garbitzeko. Kale osoa garbitu da.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>